


**Lau  
helburuetara  
heltzeko  
abiapuntu bera:**

*Ekain Guraso Elkartea  
"Zurekin Hizketan"*



**HIZKETAN.** Hitz honek bere atzetik badu zer esana, hizketaldia, solasaldia. Norabide bakarreko komunikaziotik aldendu eta bi, hiru, lau, ... norabidetako komunikazioa. Gu zurekin hizketan, zu gurekin hizketan eta helburuetara heltzeko denok elkarrekin hizketa egitea nahi dugu.

**"Zurekin hizketan"** Ekain guraso elkarteak bete nahi dituen erronkak lortzeko abiapuntua markatzen duen aldarria dela esango genuke. Lortu nahi ditugun helburu bakoitzaren abiapuntua izango dugu hizketa, komunikazioaren hasiera, helburuak lortzera eramango gaituen giltza.

**Guraso elkartearen praktika onen lehiaketarekin ere gure hizketaldia hastea nahi izan dugu. 2012-2013 ikasturtean hasi berri dugun egitasmo hau erakusleihora ateratzeko gogoia piztu zaigu, ondo egina erakusteko gogoia, beste guraso elkarteekin esperientzia partekatzeko gogoia.** Helburu bakoitza lortzeko abiapuntua hizketaldia izan dugu, egiten dugunaren zergatiaz eta zertarakoaz hausnartu eta etorkizunean egitasmo hau guraso elkartearen errotuta izatea nahiko genuke. Jarraian helburu horiek lortzeko egiten ari garenen laburpen edo azalpena duzue eskura. Eduki osoa esteka bidez lagunduta ageri da egitasmoaren begirada ahalik eta zabalena jasotzeko.

Ilusiorik ez zaigu falta, emaitzak ere begibistakoak dira eta jada gurasoen aldetik jasotzen ari gara eginiko lanaren saria eta ondo eginaren errekonozimendua. Zer gehiago eska genezake?

**Besterik gabe, gure hizketaldia hastera doa.**

**Hizketaldian parte hartu nahi?**

**1. HELBURUA:***Ekain guraso elkarteko zuzendaritza taldearen lanketa sistemak eta prozedurak definitzea, taldea motibatzea eta norbanakoa bere buruarekin egindakoaz harro sentitzea.*

2012ko urrian ospatu genuen urteroko batzar nagusian hainbat aldaketa izan ziren. Alde batetik, zuzendaritza taldearen iraupena lau urtetik bira pasatzeko erabakia hartu zen (erreleboan talde erdia irten eta beste erdia sartu). Ekain guraso elkartearen zuzendaritza taldearen hautaketa zozketaz egiten da, eta aurtengoan zozketa egiteko urtea zenez, talde berria sartu zen (erdia).

Bi urteetara pasatzeak bazituen bere alde onak eta txarrak. Onen artean, bi urteetan taldea dinamikoago eta freskoago mantentzeko aukera ematen zuen, baina, orain arteko funtzionamendua ikusita, aldaketa nabarmen batzuk egiteko beharra sentitu genuen.

Batzorde bakoitzaren lan prozedurak idatziz egotearen garrantziaz jabetu ginen eta, horrez gain, erabaki genuen batzorde bakoitzak autonomia osoa izango zuela antolatuko zituen ekintzak hautatzeko talde osoaren oniritziaren zain egon gabe. Lanak eta ardurak delegatzeak norbanakoaren konpromezua handitzea ekarriko dio elkarteari eta baita kide bakoitza bere alorrean zentratzea ere, erantzule izatea eta egin duenaren errekonozimendua jasotzea (motibazio pertsonala). Batzorde bakoitzeko kideak egin behar duen lana atsegin badu, askoz hobea izango da lortuko dugun emaitza, lana modu naturalago batean egingo baitu eta ideia berriak sortzeko aukera gehiago izango baitira. Eta hauxe da egin duguna. Komunikazio kanal berriak irekitzeak ere asko lagundu dio norbanakoaren motibazio prozesu horri (nik lotu nuen hitzaldia, antolatutakoa primeran atera da,...). Baina ez dugu ahaztu behar guztien artean dugun harreman zuzena, batzorde guztien artean osatzen baitugu Ekain guraso elkarteko zuzendaritza.

Guraso elkarteko kideen gustu, izaera eta potentzialak aprobetxatu beharra geneukan. Kanpotik komunean gauza gutxi izaterik badugu ere, badugu denok elementu komuna: denok gara guraso, eta denok gara Ekain guraso elkarteko kide.

**2. HELBURUA:***Ekain guraso elkarteak burutzen dituen ekintza guztien informazio osoa zabaltzeko komunikazio kanal berrien sortzea gurasoen partehartzea sustatuz.*

Zestoa guraso elkarte bakarra izanik (herrigunean), antolatzen genituen ekintza asko itzalean gelditzen ziren, gurasoek jakin gabe antolaketa osoa guk burutzen genuela. Hau ekiditeko bide bat webgune bat sortzearena izan zen, ikastetxeko webean txertatutako Ekain guraso elkartearen komunitatea edota atala (garrantzitsua webgune berean sartzea, gu Zestoa herri ikastetxeko guraso elkarte baikkara).

Webgune sinple bat egitea genuen helburu; blog moduko bat, asteroko hizketaldiak gurasoei zabalduko zizkiena. Atalari "Zurekin hizketan" izena jarri genion eta helburua, informatzeaz gain, gurasoek gure hizketaldietan parte hartzea da guretzat (iradokizunak jasotzea. 10 iradokizunetik gora jasoak azarotik ona). Gurasoei lanak errazte aldera harpidetzeko aukera eman genien (jada 60 familiatik gora ditugu gurean) eta hauek beraien posta elektronikoan astero badute gure hizketaldietan parte hartzeko aukera. Elkarteko komunitatea dela esango genuke eta 2013-2014an kanpainatxo bat egingo dugu berriro ere aukera hau gurasoei helaraziz.

Balorazioa, oso positiboa. Oso ondo kontsumitzen den medioa da webgunea. Guraso talde majo bat atzetik dugu gure boza zabaltzen laguntzen diguna, Zestoa bezalako herri txiki batean. Trukean, informatzeaz gain, material multimediak sortzen ditugu egin dugunaren lekuko gisa; hala nola, argazki bildumak eta bideoak. Helburua, gurasoek deskargatzeko aukera izatea eta bizitako momentuaz gozatzea. Komunitatearen fideltasuna saritzeko egindako lantxoak Picassa eta Youtubekoak.

Webguneari zabalkunde gehiago emateko eta Zestoako beste elkarte eta eragileekin informazioa partekatzeo Facebook orri bat ireki berri dugu. Hurrengo helburua lortzeko eta uztartzeko bide aproposa iruditu zitzaigun bera.

Puntu honekin amaitzeko, agian kanpotik lan erraza ikusten da, baina, gurean batzorde bakoitzak zabaltu nahi duenaren informazioaren eskema eta entrega egin behar dizkio komunikazio batzordeari. Honetarako, egutegi zehatz batekin ibili beharra daukagu, guztiontzat lanak errazte aldera. Ezinbestekoa da funtzionamendu onarekin lan egitea komunikazio kanal berriaren etorkizuna bermatzeko.

### ***3. HELBURUA: Zestoako beste eragile eta elkarteekin elkarkidetzak akordio eta egitasmoak aurrera ateratzea.***

Ekain guraso elkarteak Zestoako beste eragile eta elkarteekin badugu harremana. Herriko festetan hurren egitarauaren antolaketaz gu arduratzen gara Udalaren laguntzarekin eta, horrez gain, Gazteria Sailarekin batera zenbait ekimen antolatzen ditugu, inauteriak kasu.

Udalarekin, festetako egitarauaz gain, gauza askotarako biltzen gara: kirola hurren artean sustatzeko ekintzak antolatzeko, ludoteka sortzeko eskaerak, udaleko baliabideak gure eskura izatea ekintzak burutzeko, ... Baina, elkarkidetzetan aurten aipatzekoa Agiro Mendi taldearekin ikasturte honetarako lotu dugun egitasmoa.

2012ko abenduan bi elkarten artean haur eta familiei zuzendutako mendi irteera bat egiteko erabakia hartu genuen. Ez genekien zer nolako harrera izan zezakeen honek, baina, ahalegintzea erabaki genuen. Egun osoko irteera bat antolatu zen bi aukera ematen zituena; mendi buelta eta etxera, edota mendi buelta eta Sastarrain Baserri Eskolan familien arteko bazkaria eta haurrentzako gozogintza tailerra. Komunikazio kanpaina bat egin zen webgune eta ikastetxeko zirkularren bidez eta harrituta gelditu

ginen zer nolako harrera jaso genuen familien aldetik. Orotara 50 lagunetik gora bai familien mendi irteerara eta beste horrenbeste bazkaltzera. Gu txorutzen. Hamar lagunena kontua ematen zuenak 50 lagunetik gorako plan mundiala izatea ekarri zuen. Helburua mendiaz familian gozatzea bazen ere, irteerak eman zigun beste zerbait: gurasoen arteko harremanak sustatzea eta ondo pasatzea.

Horrela 2013rako egutegi bat zehaztu berri dugu bi elkarteok. Familiei zuzenduriko mendi irteerak izango dira. Batzuk egun osokoak eta besteak goiz pasakoak. Mendiaz gozatuko dugu eta gurasoen partehartzea sustatu ere bai. Zestoan ekimen berritzailea bada ere, oso ondo uztartzen da Ekain guraso elkartearen eta Agiro mendi taldearen asmoekin.

#### ***4. HELBURUA: Zestoa herri ikastetxearekin ditugun harremanak sendotzea, ekintza bateratuak antolatzea eta elkar laguntzea.***

Zestoa herri ikastetxeko guraso elkarte garen heinean, garrantzi handia ematen diogu elkarlan bideak irekitzeari eta etxe berekoak garenaren sentimendua indartzeari.

Ekintza bateratuak antolatzen ditugu, hala nola, Korrika Txikia, Santa Kutzetako danborrada entseguak,... eta gure arteko harremana ezinhobea da. Elkarteko webgunearen bidez ere gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen ikastetxeko edukiak aireratzen ditugu oihartzun gehiago emateko eta gure komunitatean zabaltzeko (jaialdietako bideoak, Mari Domingiren etorrera,...). Helburua bakoitzak dituen baliabideak aprobetxatuz elkar laguntzea da.

Ohiko harremana izateaz gain, gure aldetik badugu beste asmo bat: ikastetxean jaialdiren bat egitea nahiko genuke; gurasoei eskaintzeko zerbait. Topaketa arina, ikastetxearentzat karga suposatuko ez duena, baina, aldi berean irakasle, ikasle eta gurasoek elkarrekin biziko duten esperientzia. Antolaketan ikastetxe eta guraso elkarteak izango ginateke eta hori da gure nahia.

2013-2014 ikasturtean zerbait egitekotan gara eta, borondatea badugunez, seguru jaialdi politen bat sortuko dugula. Gauza gutxi behar da festa giroa sortzeko, jolas batzuk, musika eta ogitarteko batekin, denok pozik. Helburua urtean egun batean bada ere guraso, seme-alaba, senide eta irakasleak elkarrekin egotea da.

**HIZKETAN.** Hitz honekin hasi dugu praktika onen lehiaketarekin hizketaldia. Lau helburuetara heltzeko abiapuntua bera da: hizketan hastea. Bide hori jorratuz lortzen ari gara gure nahia, eta etorkizunak esango digu norabide onetik joan garen ala ez. Gu baiezkoan gaude eta bide honi jarraituko diogu. Talde motibatua dugu gurea; prozedura zehatz batzuk jarraituz dabilen talde egonkor eta irmoa. Gure lan eta egitasmoak erakutsiko ditugu erakuslehoan gurasoen partehartzea sustatzeko eta herriko beste eragile eta elkarteekin elkarkidetzaz egitasmoak bultzatuko ditugu. Eta ikastetxearekin ere egingo ditugu makina bat hizketaldi gure seme alaben hezkuntza bultzatu eta garatzeko.

**Ekain Guraso Elkarteak Zurekin Hizketan.**

**Gaurko gure hizketaldia amaitu da.**

**Bihar ere gurekin hizketan jarraitu nahi?**

## **ESTEKA:**

Egitasmo hau osotasunean ulertzeko ezinbestekoa jarraian azaltzen dizkizuegun loturak kontsumitzea eta aztertzea. Esan dugun ororen erakusleioa denez hitzetatik ekintzetarako bidea ikus dezakezue hemen:

**Lau helburuetara heltzeko abiapuntu bera: Ekain guraso Elkarte "Zurekin Hizketan" (ahozko bertsioa)**

**Ekain Guraso Elkarte Zuzendaritza**

**"Zurekin Hizketan" webguneko atala ( esandako guztiaren testigua, lau helburuetara heltzeko ekimenak bertan)**

**Argazki Galeria**

**Bideo Galeria**

**Ekain Guraso Elkarte: Facebook orria**

**Sastarraingo familien irteera**

**Harpidedunen fideltasuna saritzeko oparitxoak.**

**Ikastetxeko ekimenak antolatu eta edukiak partekatzen ( jaialdietako bideoak, Korrika Txikia,...)**



Ekain Guraso Elkarte

[ekaingurasoelkarte@gmail.com](mailto:ekaingurasoelkarte@gmail.com)